



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 13ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren hamahiruan arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: LEKUMBERRY Xantxo

Saioko idazkaria: IÑARRA François

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 9a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 9a

1. ERABAKIA: ARTZAINZA HOBEKUNTZENTZAKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA: KABALEN BAZKALEKUETARAKO SARBIDEAREN SEGURTATZEA (9.1 nomenklatura)

Auzapezak artzaintza hobekuntzako proiektua aurkeztu du, hots Udandei Lepoa deitu herri bazkalekuen hobetzea (B 608, B 609 eta B 610 lur-sailak).

Auzapezak azaldu du proiektu horren aztertzeke, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako artzaintza zerbitzuen eta herriko etxean laborantza gaiez arduratzen diren hautetsien artean gogoeta bat eraman dela.

Auzapezak, aipatu ekintzarentzat aurreikusten diren gastuak aurkeztu ditu:

-Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aurrekontua txostenaren muntatzeko:

920 euro ZK

-Philippe CURUTCHARRY enpresaren aurrekontua aipatu lur sailak motoxehatzailearekin garbitzeko:

8 550 euro ZK

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

KONTUAN IZANIK, interesgarria dela herriko bazkaleku kolektibora kabalen eramaten segitzea,

KONTUAN IZANIK, horretarako artzainei lan baldintza onenak eskaini behar zaizkiela,

KONTUAN IZANIK, hiru lur-sailetan ikusi diren beharrak,

EHLGko artzaintza zerbitzuari AGINDU DIO proiekturako laguntza teknikoa eskaintza eskaini diezaion obra-agintariari,

DIRU LAGUNTZAK ESKATU DIZKIE, Akitania Berria Eskualdeari eta Europari,

KONTUAN IZANIK, 9 470 euro ZK-ko aurrekontua (lanak + laguntza teknikoa),

Honako finantzazio aurreikuspen plana atxikitzea **ERABAKI DU**:

- Finantzazio tasa: %70
- Dirulaguntza: 6 629,00 euro
- Autofinantzamendua: 2 841,00 euro

ERABAKI DU, diru laguntzak onartzen bazaizkio eta Herriko Kontseiluak onesten badu, lanen honako egutegia:

Hastapena: 2025eko urria
Bukaera: 2027ko abendua

AGINDU DIO, Auzapezari, erabaki horien gauzatzea eta baimena eman dio horretarako administrazio dokumentu oro izenpetzeko.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, ekintza horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Jardunean diren kideak: 15
Presente direnak: 14
Adierazi diren bozkak: 14
ALDE: 14
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 13an

Auzapeza:
Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 14an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.